

## NEKAZARIAK MORROI

1

Mila urte ta bederatzirehun  
larogei eta hamalau  
bertso batzuak idatzitzeko  
kontzientziak esan nau  
aldan ondona bete nahi nuke  
gaur nere eginkizun hau  
nere memori iluna jaunak  
pixkabat argitzen banau

2

Nekazaria jaio nintzan da  
nekazaritzan naiz bizi  
gure arteko berriak pixkat  
nahi ditut adierazi  
atzerritarrak jarri zaizkigu  
gure etxean nagusi  
anai arrebak bihotzekoak  
ez al da nahiko desgrazi?

3

Agintariak hartutzen dute  
nahi duten erabakia  
ez derizkiot hori guretzat  
danik oso egokia  
kanpotik dator gure herrira  
esnea ta haragia  
ta etxekoa ezin saldurik  
bertako nekazaria

4

Suizatik dator haragi ta  
esnea Holandakua  
eta bertako nekazariai  
jartzen digute kupua  
horrek ekarri digun laguntza  
ez dugu nolana hikia  
zazpian saldu behar sarritan  
hamabi kostatakua

5

Alata guztiz nekazariai  
esaten ari dirade  
gaur baserrian aurrerapenak  
jarri beharrean gaude  
hemen bakoitzak izan behar du  
bere buruaren jabe  
baserri zaharra ondo legoke  
tarteko lapurrik gabe

6

Agintariak gureganako  
bihotz xamurra daukate  
krisis aldia gaindituko da  
aho betean diote  
sinistu eta konfiatzeko  
hori esaten digute  
berak neregana ez dakit baina  
nik berengan ez dut bate

Orain bertso lanari utzi eta txiste pare bat bota behar dikitutet. Barkatu guztatzen ez bazaizkitzute.

Iritxi omen da erretore berria herriko plazara, eta hantxe ikusi omen du, kristoren ume pila jolasian eta:

- Jesus hau ume pila, hau edertasuna.
- Zer zarete oso lagun onak?
- Ez apaiz jauna denak anai-arrebak gera.
- Anai-arrebak denak? zenbat anai-arreba zarete ba hamar edo?
- Ez geiho.
- Zenbat ba hamabost?
- Ez geiho.
- Zenbat bat hogei?
- Hogeita bost apaiz jauna.
- Hogeita bost anai-arreba? Jesus hau edertasuna.
- Ama aldare batian jarrita edukiko duzue ezta?
- Bai zera! armaiuan gordeta aitak ikusi ez dezan!

-----

Beste hau Igeldoko baserritar bati gertatua

Jetxi omenda Donostira zapatak eroatera eta, kendu omen ditu lehengo zapatak eta kaltzetinak eta ezer gabe. Hor asi omen zaio dendakua ilea hartzen, "coño" galtzetinak onak ekarri dituzu (E) oiek etzaizkizu bela puskatuko", ez, eztakit ba gantzontzilloak ere marka berekuak ekarri ditut eta atzian jesukriston zuloa daukate.

**MARTZELINO LEGORBURU**  
**(ARCIÑANE)**